

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Apirilak 3, 145. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Mahaingurua

Fedearen krisia



ERAMAZU.

1.323.300 PTatik hasita



Clio S 92 c.v

Orain, 5 atekoa ere bai.

MECA, S.A.

ARRASATE

2 IKASTARO



ARGAZKIGINTZA

Hastapen maila

Apirila eta maiatza


Astelehen eta ostegunetan

Arratsaldeko 7etatik 9etara

Matrikula: 1.000 PTA

PLAZA MUGATUAK!

Izenemateak:
Gazte Informazio Bulegoan



ORDENAGAILU BIDEZKO MUSIKA

Apirila eta maiatza

Arratsaldez

Matrikula: 1.000 PTA

PLAZA MUGATUAK!

Izenemateak:
Gazte Informazio Bulegoan

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arrantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Publizitatea eta harpidetzak:

Kepa Oñden. Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udako Ingurugiroko Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Nola idazten da Europa?

Badira lau hilabete Georgiako lagun bat Arrasateraino iristeko ahaleginetan ari dela, baina gaur den egunean ez zait oraindik heldu. Errepublikak hartako liskarrak alde batetik, ikaragarrikoa izan ei den elurtea bestetik, eta auskalo zenbat eragozpen tarteko, antzu gertatu zaizkio saialdi guztiak. Iazko urrian aparkaturik utzi genuen solasaldiari ez diogu jarraipenik eman ahal izan, ezta telefonoz ere, Georgiarako komunikazio zuzena etena suertatu bait zen hil hartan bertan.

Arestian irakurri ahal izan dugunez, bestalde, Georgia da, Sobiet Batasun ohiko errepubliketatik UNO-n sartzea eskatu duen bakarra. Gauzak ez daude batere garbi georgiarren artean eta, bizitzen ari diren saltsa maltsa hartan zenbaitzuk europar izateari uko egin nahi diotela ere entzun da. Aldaketa larregitxo, ia lauorgeri urtetan zehar inobilizapenik gogorrena jasan duten hango hiritarrentzat.

Europar ematen ari diren mugimenduak kontutan izanik, galdera bat baino gehiago datozkit baitara, inoiz erantzunik izango ote duten ere zalantzan jartzen dudalarik. Zaila gertatzen zait, egun batetik bestera ezagutzen ditugun zehazkizun geopolitiko berriak, soil soilik geografiaren bitartez ulertu behar

izatea, batzuek nahi duten bezala. Hogeigarren mendean eta aurrekoetan ere, europar garaileek ezarri zituzten mugen errealitateak egundoko kontraesanak sortu zituen kontinentean. Hori ez bairik gabeko egiaztapen etsigarria dugu.

Betiko pribilegiatuen ahotik, "kultura eta pluraltasun demokratikoaren Europa"ren gainean entzuten dudanean, defentsa-jarreraren ipintzen naiz, kultura, pluraltasun eta demokraziari buruz zer ulertzen duten asmatzea hain zaila ez zaidalarik.

Norbaitek argitu beharko lidakeen puntu ilun bat zera da, europarrak izan gaitezen "zeren" bitartez bataiatuko gaituzten horrela; hau da, independentziaren kontzeptuak bere balorea galdu badu -hots, nire nazio estatusari uko egin behar badiot- neri zergatik emango didate europartasun horren nortasuna? Arrasatear (arrai-oiar) izateagatik? Euskaldun naizelako? Edo... ba al da beste arrazoirik?

Europar estatu-arkitektura berria nola "idatzi" behar den arrotz zaidalarik, suntsipen ideologikoaren biltegira gutariko askoren merituak ere ez ote genituzkeen eraman beharko pentsatzen dut sarri, ezen gaitz irudi dezakedan gureak bezain aintzindari antzu eta hutsik.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua




**Hilbera
katetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



ECUADOR

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Ekologismoa, natura eta
autokritikak**

Gaurko munduan modan jarri da ekologiaz hitz egitea. Asko hitz eginda ere, erakunde publiko nahiz entitate aldetik oso aldakuntza txikiak ikusten dira. Horikontutan izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu hainbat salaketa, edeia edo iniziatiba argitaratzea, ahal dugun neurrian, hemengo giza-emakumeen kontzientzietan balore berri batzuk sor arazteko.

Batzuetan hobeto egingo dugu, beste batzutan okerrago, baina saiatzen gara, gure aldetik, daukagun onena jartzen. Sarritan zaparradatxoak ere hartzen ditugu, hala ere merezi duela uste dugu. Edozein modutan, hanka sartzeak egiten ditugunean ez gara kortatuko autokritika konkretuak egiteko. Hueskako Bielsa asuntoan daramagun eztabaida ez dugu ikusten arazorik "mea culpa" esateko. Goazen puntutxo batzuk argitzera:

1. Nahiko ondo informatuta geundela uste dugu. Daukagun ezaguera ohoz-aho hartu genuen hilbeltzaren 7-8an CODA-ko bileran izan ginen Arrasateko EKiko hiru partaideok, (Asociación Defensa de la Naturaleza) ADNko jendearen eskutik. Dokumentazioa ere bidali ziguten.

2. Arrasatekoak garenez, hemen idazki bat prentsara bidaltzea eskatu ziguten. Taldean eztabaidatu ondoren, horixe egin genuen.

3. Toki desberdinetako talde ekologisten arteko elkartasuna eta kolaborazioa beharrezkotzat jotzen dugu.

4. Jakinean gaude inpakto-ikerketak eginda dagoela... egia da, askotan inpakto-ikerketak naturaren aurkako ekintzak legalizatzeke erabiltzen direla ere. Inpakto-ikerketak egiteak, berak, ez du ezer garantizatzen.

5. ADN talde ekologistak, gure errespeto eta txaloa merezi du eta

beraien inguru eta han dauden animaliek guk baino hobeto ezagutzen dituzte.

6. Inor engainatzeko asmorik ez dugu, gure gida naturaren alde egitea da. Gure aldetik polemika hau bukatutzat jotzen dugu. Eskerrik asko.

ARRASATEKO EKI EKOLOGISTA TALDEA

Burutazioa

Joan zen igande arratsaldean bazkalostekoaren ordu tonto horretan pasiatzen nebilen eta goikaldeko emakume batekin egin nuen topo bidean. Eta, antza denez, egunen baten Donostian egongo zarela baso bete esne hartzen eta gero zuzenean zure autoan joanda Iruñean patxaran kopa bat hartzen egon ahal izango zarela bururatu zitzaidan.

Gu bizi gareneko dragoiaren herri hau beste edozein bezala polita dela uste dut. Gauzak egiten dira eta umeek ikasi egiten dute eskoletan; eta errekek kristal likidoa bezala ez badatoz ere, leku askotarako egiten ditugu zerrailak. Eta baditugu geure jaiak ere. Lana eta jai inork baino hobeto bategitera iritsi garela esango nuke. Ezagutu nuen behin amandre bat, apur baten nobela irakurtzera zihoala esaten zuena (baldin eta bere eskuetan egunkari bat erortzen bazen): Beharbada, geroago antzeman nuen herri hau maite zuela.

Denbora asko daramagu albisteak eta Sovietar Batasuna zen alde horretako argazkiak mailuka ditugula. Eguneroko ogia eta arrautzak erosteko dendetan iladak nola egiten ziren ikusiz.

Eta arratsalde hartan pentsamendu iheskor hura ondorioztatu nuen, beharbada beste irla honetan abenduaren hogeitazortzi gehiegi izango ditugula, beharbada. Dragoi honen zuzendari jaun/andrea Gesalibarko bera ote den halako usai bat hartzen zaiola batzutan; eta eskuak garbitu.

BEGIRATZAILE BATEK

MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

Ordu aldaketaren aldekoa zara?



Maria Angeles Diez
(Langilea)

Lanera joateko oso goiz jaiki beharra izaten dut eta lehenengo ordutegiaz hobeto konpontzen nintzen.




Gorka Etxabe
(Ikaslea)

Ez dut gauza berezirik nabaritu kontu horrekin. Berdin zait.




Mari Angeles Zubiaga
(Bankuko langilea)

Nik pertsonalki ez dut aldaketarik ikusi ordu aldaketa honekin. Eguna gehiago luzatzen da eta beno, bestela ez dago aldaketarik.



Klemente Billar
(Galdaragintzako langilea)

Ez dut gauza nabarmenik ikusten. Berdin zait.



Iñaki Unamuno
(Txoferra)

Nire lanarentzat oso egokia da oraingo ordutegia. Baina ulertzen dut beste batzuentzat oso egokia ez izatea.



Mari Jose Beitia
(Fagorreko langilea)

Ez, ez nago ados, desegokitzea dakar eta deskontrola. Hobe izango litzake ez aldatzea.

HOSTAL LASA

Jatetxea

Ostiral eta larunbatetan gauzez zabalik.
Astelehenetan: itxita

Bidekurutzeta, 36 Tfnoak: 76 10 55 / 76 20 29
BERGARA

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHLTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO


ZENTRUAK	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO

INFORMAZIOA	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



3

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El pequeño Tate" (5-7.30-10).
- Kontzertua: SS-77, EH Sukarra eta Su ta gar taldeekin, gaztetxean 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaeuz: Puy, Bergara.

4

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El pequeño Tate" (5) "JFK"(7-10.15)
- Umeentzako euskarazko bideo-emanaldia: "Poliziakademia 3", Monterronen arratsaldeko 4.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gaeuz: Guallar, Bergara.

Kirol Agenda

Pilota

- Euskal ligaren barruan, Arrasate-Azkoitia, igandean eguerdikoa 12etan Iturripen.
- Deba Arroa txapelketa, asteartean Aretxabaletan, Aretxabaleta-Arrasate, arratsaldeko 7.30etan.

Txirrindua

- Musakolako proba, kadete mailako txirrindularientzat, igandean goizeko 10.30etatik aurrera.

Futbitoa

- Zaldibarko txapelketaren barruan hamabi partidu larunbatetik igande goizera bitartean.

5

IGANDEA

- Zinea: Alai: "El pequeño Tate" (5) "JFK" (7-10.15)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaeuz: Guallar, Bergara.

6

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "JFK" (7-10.15)
- Mendiko zinema zikloa, "K-2, mendi handia", San Viator Txikiko aretoan arratsaldeko 8etan.
- Ikastaro praktikoa: "Análisi bioenerjetikoa", arratsaldeko 4etan AEDn.
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Estella, Bergara.

7

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "JFK" (7-10.15)
- Mendiko zinema zikloa, "Ur zuriak" eta "Horrela mintzozen Zaratustra", San Viator Txikiko aretoan, arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaeuz: Mozos, Bergara.

8

ASTEAZKENA

- "Islama eta herrien independentzia" hitzaldia pleno aretoan, arratsaldeko 7etan.
- Mendiko zinema-zikloa, "Ur lasterrak" eta "Hiriak liluratirik", San Viator Txikiko aretoan, arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Camacho, Bergara.

9

OSTEGUNA

- "Arrasate lehiaketak" liburua-aren aurkezpena, Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan.
- Mendiko zinema-zikloa, "Azken erronka", San Viator Txikiko aretoan, arratsaldeko 8etan.
- Gantxillo ikastaroa, AEDn arratsaldeko 3etan.
- AED lehiaketaren liburua-aren aurkezpena. Pleno aretoan, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaeuz: Puy, Bergara.

Udalekuak

• Euskal udalekuak

Irekita dago, ekaina, uztailea eta abuztuaren zehar Abaigar, Bernado, Goñi eta Urdiraz herrietan izango diren euskal udalekuetarako izen ematea. Txanda bakoitzaren zehaztasunak eta izena emateko agiriak ikaste-txeetan jaso daitezke. Banatuko diren ikastaroak, 1. mailatik hasi eta 8. mailaraino izango dira. Gainera B.U.P. eta F.P. koentzart Abaigarkoa izango da. Prezioak 9.900 pezetatik, 18.700era doaz txanda eta iraupenaren arabera.



Ikastaroak

• Argazkigintza

Apirila eta maiatza bitartean argazkigintza ikastaro bat izango da Arrasaten, astelehen eta ostegunetan, 7etatik 9etara. Matrikula 1000 pezetakoa da eta izenak Gazte informazio bulegoan eman daitezke. Plazak mugatuak izango dira.

• Musika ordenadore bidez

Ordenagailu bidezko musika ikastaroa antolatu da, apirila eta maiatzean. Matrikula 1000 pezetakoa izango da eta izenak emateko Gazte informazio bulegora zuzendu beharra dago. Plazak mugatuak izango dira hemen ere.



AEKjirako rock jaialdia

Ostiralean, SS-77, Su ta gar eta EH Sukarra Gaztetxan

AEKjira erakusketak Arrasateetik aldegin zuen, baina oraindik bere inguruan antolatutako ekintzei bukaera emateko gaur gaueko hamar t'erdietatik aurrera burutuko den rock kontzertua gelditzen da. Aipatutako rock kontzertua Gaztetxean izango da eta bertan gaur egun modan dauden hiru talde: SS-77 arrasatearrak, E.H.Sukarra eta Su ta Gar eibartarrak.

Normalean nahiko paraje beroa izaten bada ere, aipatutako hiru taldeek gehiago berotuko dute Gaztetxea eta Gaztetxean bilduko den jendea, momentu honetan punta-puntan dauden taldeak dira eta. Rock-kontzertua modu onean ikusi nahi dutenek azkar mugitu beharko dute eta ordua baino lehenago agertu Gaztetxera, jende asko espero da eta.

Hitzaldiak

• Politika-Ekonomia

Datorren larunbatean, eguerdiko 12etan "Poder global y decadencia domestica" izeneko hitzaldia egongo da Udaltxean. Izen honekin, 90. urte-tako EE.UUko politika ekonomikoa aztertuko da. James Petras, soziologoa amerikarra izango da hizlaria.

• Garizuma

Ostegunero, Parrokian Garizumari buruzko hitzaldi batzuk izango dira. 9etatik 10etara Jose Mari Setien Pastoralaz aztertzea da helburu nagusia. Garizuma inguruko otoitzak prestatuko dira egun hauetarako.

• Islam

Datorren apirilaren 8, asteazkenean "Islama eta herrien independentzia" izeneko hitzaldia izango da Arrasateko pleno aretoan arratsaldeko 7etan. Hizlaria Sheij Aderraman eta Vus'muri Zwane, Hego Afrikako musulmanen emirra eta zulu buruzagia.

• El Salvador

Bihar larunbata, arratsaldeko 5etan Oñatiko Kultur Etxean Jorge Palencia, FMLNko ordezkariak hitzaldi bat emango du. El Salvadorreko herriak pakeruntz eman duen aurre-pausoa dela eta, hau posible izan duten guztiak oroitzea nahi da, bereziki Pakito Arriaran. Hitzaldia bukatu ondoren, afari bat

izango da Arrasateko Arrano elkartearen. Afarirako txartelak Biona, Irati eta Iturriotz tabernetan jaso daitezke. Askapena eta Komite Internazionalistak antolatzen ditu ekitaldi hauek.

Liburuak

• AED lehiaketan liburua

Apirilaren 9an, AED lehiaketan liburuaren aurkezpena izango da Pleno aretoan, arratsaldeko 7etan. AEDko literatura lehiaketan irabazle gertatu ziren lanekin osatutako liburua izango da. Aurkezpenean, Andoni Urzelai, Jabi Tramon, Daniel Goikolea eta Amaia Agiriano, ipuin eta bertso sailetakoa irabazleak egongo dira. Tertulian animatzaile Jon Andueza.

Mendia

• Besaide

Besaide mendizale elkar-teak, apirilaren 12 iganderako irteera antolatu du. Goizeko 7etan irten eta Lizarraga, Berrain eta Uharte Arakil herriak bisitatuko dira. Izena Besaide egoitzan eman daiteke apirilaren 6, 7 eta 8an. Prezioa bazkide-entzart 800 pezetakoa izango da, 1100 ez direnentzart eta 400 gazteentzart.

Bilerak

• Degabel

Degabel, Deba Garaiko Abeltzale elkarteak, bilera orokorra izango du. Antzuolako Guraso Elkartearen igande goizeko 12etan. Aztergaiak honako hauek izango dira: Aurreko Aktaren onarpena, Elkartearen jokaera eta funtzionamendua, gai ekonomikoak, Estatutuaren azterketa eta Galde-eskariak.

“Aurrekontuen prozesua luzea izan da, baina aurrekontuetako emendakinak, kontuan hartuta adostasun maila handia lortu dela ikus daiteke; beraz, maila oneko proiektua dela uste dut”.

(Ino Galparsoro, Hazienda Batzordeburuak aurrekontuei buruzko plenoan)

“Harremanak luzeak izan dira eta gai desberdinak nahiko eztabaidatu ditugu, horregatik ez dugu enmiendarik aurrekontuetan”.

(Pedro Mari Ruiz de Azua, Eako bozeramaleak aurrekontuei buruzko plenoan)


“Aurrekontua kontinuitatekoa da eta ez du eskaintzen diren zerbitzuaren kalitatea kuestionatzen. Aberastasuaren banaketan ez da lortzen emakume, auzo edota gazteriari irtenbiderik ematerik. Inbertsioei dagokienez, ez dago errentagarritasunik, zerbitzuak motz gelditzen dira eta. Helburu garbirik jarri gabe, arazoak konpontzeko egiten den bakarra pertsonala gehitzea da”.

(Nekane Iglesia, PSOEko bozeramalean aurrekontuei buruzko plenoan)

“Kontinuitatekoa dela eta ez duzue horren aurrean ezer planteiatzen. Aberastasuaren banaketaz, esatea alorrek zehaztu barik daudela, baina badago horietaz arduratzeko zerbitzu orokor bat. Kalitate falta? zerbitzu guztien bezala hobetu beharra dute eta horretarako sortu dugu gerentzia berri bat. Lanpostu fijoak arazoei irtenbidea emateko planteiatzen dira, helburu horiekin ados egon edo ez, beste arazo bat da”.

(Ino Galparsorok aurrekontuei buruzko plenoan)

Zer dela eta antolatu duzue Euskal nortasunari buruzko hitzaldi sorta?



Biteri Egoitza (inguruan “Colegio Menor Viteri” bezala ezagunagoa) Eskola Politeknikoaren hezkuntza arloko baliapen barnean dago. Lan honetan murgilduz, udaberri honetarako hiru solasaldi eratu ditugu. Hauetariko bat “Euskal Nortasuna” izenburupean aritzen delarik.

Batere dudarik gabe, Euskal Herria jasatzen ari den gizarte, kultura, elkarbizitza, politika,... eta baita ekonomiarazoen iturrietako bat: herriak dinamikoki bizi gabeko eta, helburu sortzaile batekin bildutako baliapideak dituen “leader” batek, aski pertsonifikatu ez duen nortasunean datza. Hitz gutxitan esanda, aurkitu gabeko nortasuna.


Lehen atal honetan Euskal Nortasuna izatea erdikusten hasteko, Gipuzkoa eta Arabako Diputatu Nagusi ohiak, Bizkaiko Diputatu Nagusia (lehengoa hila medio) eta Nafarroako Lehendakari ohi gonbidatu ditugu, zeren hauek, beste batzuren artean, gerora begira aztarnak utzi ahal izan dituzten, eta aipatu nortasuna eratzen eragina izan bait dute.

Orokorrean, bakoitzarengan jarritako aidurua bete dute; elkarriketa zuzen, argi eta bizia mantenduz, azken honek une batzuetako gogortasuna kendu ez duelarik.

INAKI MADINABEITIA,
BITERI EGOITZAKO ZUZENDARIA

14.30 - 16.00

KALE KANTOIAN



HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA




Laxaro
Azkune

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8

Zer deritzozu joan den astean onartutako udal aurrekontuari?



Xabier Zubizarreta
HB

Azkenengo urteetan ahalegin handia egin du Udalak berriro ere azpiegitura hobekuntzan eta zerbitzuen prestakuntzan. Bestalde, esango nuke Udalean diru-sarreraren gestioa ona izan dela, asko hobetu dela, horregatik halako zorpe-kuntza txikia. Pertsonal aldetik lanpostu fijoen gehikuntza dugu. Gastu arruntari eusteko ahalegin bat eta gauza berezi moduan aurrerapen plana litzateke, 50 milioi eta bukaerarako ia 250 milioi izateko.



Nekane Iglesias
PSOE

Proiektu osoari emendakina aurkeztu genion. Zergatik? ba eskari sozialei ez zielako erantzuten eta aberastasuna ez zelako behar bezala banatzen. Erakundeek emandako dirutzak eta erakundeek eskaintzen duten zerbitzuak ez dute parekotasunik. Ikastetxeek ere, ez zaie laguntza bera ematen. Orokorrean esango nuke aurrekontu kontinuista dela, gizarteak eskatzen duenari erantzuten ez dion aurrekontua, oso mugatua.



Jose Mari Loiti
EAJ

Nire alderdiaren eritziz aurrekontuan ohizko gastuak handiegiak dira, inbertsioetan ere diru asko sartu da eta ikusi egin beharko dugu aurrekontua betetzeko gai garen edo ez. Orokorrean esango nuke aurrekontua ona dela eta behar bada ohizko gastuetan diru gehiegi dagoela sartuta. Zentzu horretan, nik nahiago dut gauza gutxi egin baina ondo eta ez asko eta txarto; eta agian hori gertatzeko arriskua dago.



P. M. Ruiz de Azua
EA

Aurrekontua beste erakunde batzuren eredu izan beharko litzateke, aurrekontu aurreratzailerak eta era berean aurrerakoia da eta. Aurreratzailerak da, gastu korrenteari aurreko urteetako mailetan eusten baitzaio. Aurrerakoia da, kontzeptu berriak sartu ditugulako: garapen eta aurrerapen plana alde batetik; bestaldek, hezkuntzari ematen zaion soportea guztia, nahiz eta behar bada Udalaren konpetentzia ez izan.



Aitor Orobengoa
EuE

Aurtengo aurrekontuen alderdi positiboak iazkoaren jarraipena dira; alderantziz, alderdi txarrak esango nuke EAJk sortutako tentsioaren ondorioz sartu direla, besteak beste, San Viator Txiki delako eskolari eman beharreko laguntza. Nik uste EAJk erabili duen tentsioa ez dela erabili helburu politikoekin, helburu pribatuekin baizik. Tentsio horren ondorioz, EAJk Herri Batasuna bahitu egin du aurrekontuen negoziazioan zehar.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z *a r r a o a*

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

ARRASATE
PRESS



77 05 65

Zabor-biltze gune berriak

Etxeetako zaborren bilketa-zerbitzua hobetu nahirik, Udal elkarteko Bilketa Zerbitzuak guneak kontzentratzea nahi izan du. Horretarako, irudi eta pilote batzuekin markatu dira guneak eta puntu kopurua gutxitu egin da. Proiektu berri hau Musakola eta Erdialdean jarri da martxan eta espero da maiatzerako Uribarri, San Andres eta Santamarinan ere jartzea. Azken finean jarraitzen den helburua, zabor batzea razionalizatzea, zarata eta molestia gutxiago sortuz eta denbora gutxiagoan biltzeko. Herrian guztira 81 pilote jarri dira eta 16 apartakaleku kendu. Zaborrak gaueko 9etatik 10etara bitartean ateratzea eskatzen da, eta ez lehenago.

PSOEren errekurtsioa atzeratu

Joan zen ostiralean izandako Udaleko ohizko bilkuran, aurrekontuak onartzeaz gain, PSOEk aurkeztutako *Senide* aurkeztutako mozioaren kontrako errekurtsioa aztertzea espero zen. Aurreko akta ez zen onartu bozkatzeko eskubidea nork zuen eztabaidatzen ibili ondoren, eta beraz mahai gainean geratu zen errekurtsioa ere.

ONGIETORRIA JAI OBERRIEI

- Danel Arrizabalaga Ruiz de Zarate, martxoaren 20an.
- Kevin Sanchez Cruz, 23an.
- Ander Romero Villaverde, 24an.
- Cristian Serrano Garcia, 26an.
- Kevin Vila Vicente, 27an.
- Francisco Javier Pedrosa Rodriguez, 29an.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

- Agustin Juan Bautista Aranburu Garcia & M^a Asunción Ibabe Atxa. Martxoaren 19an, zibilez.
- Juan Carlos Rivero Hernandez & Amaia Zaldúa Garitano. 28an, zibilez.
- Jose Antonio Abarrategi Dominguez & Rosa M^a Martinez Alcocer, 28an, elizaz.

Txandaka

ARRASATEKO UDALARI EKI-ren PROPOSAMENA

Egungo kontsumismo itzelak ondori nagusizat zabol pila gaitzak uzten ditu. Plastikoa garaian erabili, bota eta osterari erosi: hauxe da kontua!

Gai honetan asko sakondu barik, errez ikusi dezakegu despilfarroa itzela baino itzelago dela. Kontestu honetan birziklaia zein berreskurapenak garrantzi handiago hartzen dute, kontutan izanik neurri hauek hestuki loturik daudela, batetik naturaren zainketaekin eta bestetik naturak berak eskaintzen dizkigun - eta mugatuak diren - errekurtsioen aurkezpenekin.

Har dezagun kontutan zenbat paper, ohiak, beira, pila dihoazen zaborretara erabiliak izan ondoren.


Gizarteak papera, kartoia eta ohiak birziklatzeari ekingo balio, ondoriozko aurkezpen ekonomiko-soziala garrantzitsua litzateke:

1- Egun pinu insignis-az landaturiko hainbat lur-eremu beste erabilera batzuetarako libre geratuko lirateke.

2- Energia kontsumoa gutxituko litzateke.

3- Lanpostuak sortuko lirateke: batuketan, birziklaian eta komertzializazioan.

Birziklai-planak lehenbailehen martxan jar ditzaten, EKIk proposamen hau luzatzen die Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Antzuola zein Bergarako udalei halanola Deba Garaiko Mankomunitateari:



“Piter” Encinas (*)

1- Udalak bandoa argitaratu dezan lainera informatuz, hala-nola papera birziklatua erabil dezaten eskatuz: enpresei, Udal erakundeei, komunikabideei, eskolei, ikastolei eta era guztietako erakundeei.

2- Udal lan-talde autogestionatu baten sorrera, langabetuz osaturik, papera, ohiak eta kartoia batzea izango lukeelarik lan nagusi.

3- Udalak birziklaia lanak zainduko litzateke, sortutako paper birziklatua ahalik eta ekologikoena izateaz eta kutsadura zaintzeaz arduratuko litzatekeelarik.

4- Udal lan-talde baten sorrera informatu, arauak eman eta beira batzeko ipini liratekeen kontenedoreak behar bezala erabiltzea bultzatuko luke eta. Helburua, epe motzera, birziklaia izango litzateke; hala ere epe luzera interesgarria litzateke beira-ontzien berrerabileraren bultzatzea. Ez legoke bat ere txarto apurka-apurka “Tetabrik” eta antzekoek beirakoengatik aldatzea, horiek birziklaia ezinakin eta erretzerakoan oso kutsakorrak direla kontuan izanik.

5- Goian aipaturiko lan-taldeak Udalaren antalakuntz eta garraio medioak erabil ahal izango litzateke, halaber ODArekin (Ondakin Deposito Alternatiboarekin) elkarlana ere sor daiteke.

6- Gai hau eztabaidatzeko asmoz, EKIk, Udalari elkarrizketa bat eskatzen dio lehenbait lehen.

(*) DEBA GARAIO EKIKO PARTAIDEA



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
 aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



ARKOko lehen asanblada orokorra asteartean burutu zen

ARKO-ko Batzar Orokorra

Arrasate Press eta ATBk osatutako kultur elkartea

ARKO "Arrasate Komunikabi-deak"eko lehen Batzar Orokorra burutu zen pasa den asteartean. Batzarrari hasiera emateko, Mikel Irizarrek, ARKOk lehendakariak, elkartea eratzeko prozesuaren deskribapena egin zuen.

Era berean orain arte ARKO eta Udalaren artean izan diren harremanen berri eman zuen. Aipatutako harremanen ondorioz Udala eta ARKOk arteko hitzarmena dator, ekonomian eta Arrasate Press eta ATBren egoitzan eragina duen hitzarmena. Ekonomia aldetik, aipa daiteke hitzarmenari esker ARKOk Udal aurrekontuetatik 30 milioi PTA jasoko dituela; egoitzari dagokionez, berriz, Ospital Zaharreko obrak hasten direnerako ATB eta Arrasate Press Oalora kaleko Udaletxe zaharraren egoitzan egongo dira.

Komunikabide bi horiei buruz, Mikel Irizarrek enpresa dinamika sortu beha-

rra aipatu zuen, beti ere profesionaltasunaren bila. ARKOk lehendakariak, urtarrila eta otsaileko datu ekonomikoen arabera gutxieneko iharduera ziurtatuta zegoela adierazi zenez. Dena dela, azpimarratu zuen, Arrasate Press eta ATBren helburua ez da irautea bakarrik, egunegun hobetzea baizik. Zentzu horretan, ATBko programazio berria eta emisio-orduen gehiketa eta Arrasate Pressen egingo den birmoldaketa aipatu ziren.

Aurrera begira, orain arte emandako urratsei jarraitzeko asmoa adierazi zen eta era berean diru-iturriak gehitu beharra, publizitatearen arlotik eta enpresen inplikazio zuzenetik.

Batzar horri bukaera emateko ARKO AEDko bazkide izatea eta alderantzizkoa proposatzea erabaki zen eta Zuzendaritza Batzordearen finkapena onartu.

Usteak uste

Duda barik Arrasatek Hezkuntzaren urtea bizi du aurtun, udal aurrekontuaren egileek egin dituzten zenbait adierazpenetatik ere egiazta daitekeelarik. Horra hor hainbat ikastetxek aurtun dituzten ospakizun eta urteurrenak. Ahizpa Mertzedarien ehun urteko presentzia Arrasaten, Almen eta San Frantzisko Xabier Ikastolen hogeitabostgarren urteurrena, Arrasate Musikal sortu zela ere hogeitau urte badatoz. Ospatzeak ezezik, LOGSEaren ezarrerak eta honen garapenak ere sortuko du buruhausterik, ahalegin berezia eskatuko bait zaie zentru guztiei. Ahalegin berezi hauen ezaugarriak agerian jartzen hasiak dira dagoeneko. Obrak alde batera utzita, batetik, haur-hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza mantendu edota hartzeko ikastetxean arteko "istiluak". Bestetik, 93ko Europak inposatu duen kompetibitateari aurrea hartuz gure inguruko ikastetxeek "tokian tokiko" irakasle goiari eutsi guran lehiari ekin izana.

Astekari honen azken aleei begiratu bat ematea baino ez dago ikasle potentzialen eskasiak dakarren egoerari aurre egin asmoz erabili diren baliabideak -kasu honetan marketing-a, publizitatea- era askotakoak direla oharrezko. Guzti honek ikastetxeen arteko errezelua baino ez du pizten.

Gertatzen dena gertatzen dela, egoera honek irakaskuntzaren kalitatean eragin dezala. Hala bedi!!

JON GARAY

ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uribururu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

EE Arrasaten EuE bihurtu

Joan den ostegunetik EEK ez du ordezkariarik Arrasateko Udaletxean eta bai, ordea, Euskal Ezkerrak. Izen eta izaera aldaketa hori Aitor Orobengoak tramiteak bete eta gero gauzatu da.

Laso argazkidenda eta Aiat-en oharra


Aiat, Institutuko argazki taldeak, diru laguntzak lortzeko zozketa antolatu zuten. Saria Laso argazkidendak ematekoa zen: bideokamara, reflex kamara eta beste kamara konpaktu .bat. Zenbakiekin arazo batzuk izan direla eta, salduta dauden boletoak Lason entregatzea eskatzen da, dirua bueltatzeko.

Arantzazuko otoitzaren ondorioa

Euskadiko Kristau Elkarte Herritarak, joan zen asteburueran Arantzazun izan zen preso guztien aldeko otoitzaren ondorio gisa, idatzi bat atera du. Bertan "Espetxeratu politiko eta sozial, errefuxiatu eta deportatu guztientzako Amnistia" eskatzen dute. Otoitz hone-tan 25 arrasatear inguru hartu zuten parte.

AHIZKE-CIMen oharra

Ingeleseko Cambridgeko P.E.T. az-terketa egiteko matrikulatzeko epea zabalik dago datorren apirilaren 8arte. Informazio gehiago lortzeko, bulegora zuzendu edo telefono honetara dei dezakezue: 79 01 32.



Deba erreka ur ugari eraman du azken egunotan

Martxoa euritan blai

Hilaren 27an metro karratuko 54 litro bota zituen

Euri zaparradei dagokienez otsaila oso hilabete lehorra izan zen moduan, martxoa, eta batez ere martxoaren azken astea, oso emankorra izan da. Hilaren 24tik aurrera egunero bota zituen euri tantaren batzuk eta Ikerlaneko datuen arabera, metro karratuko botatako litroak hauek izan ziren: 24ean, 38'9; 25ean, 47'8; 26an, 7'6; 27an, 54'5; 28an, 27'5; eta 29-30-31an 11'5. Egunik euritsuena martxoaren 27a izan zen. 24a arte iragandako egunetatik, hamarretan ere euria egin zuen eta gainontzeko ha-

mahirutan ez. Beraz, oso hilabete euritsuua.

Hotz-beroei dagokienez ere, al-daketa nabariak izan dira egun batetik bestera. Hil osoko egunik beroena 20a izan zen; egun horretan termometroak 25 gradutaraino iritsi bait ziren; hotz-na, berriz, 25a izan zen termometroek ez zuten eta 6 gradutatik igo eta ia 0 gradutaraino iritsi zirelako. 24a, 26a, 27a eta 28a oso antzerakoak izan ziren hotz beroei dagokienez, 2 eta 8 gradu artean ibili ziren eta.



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



Hamahiru gazteek eta abokatuak Udaletxean eskaini zuten prentsaurrekoa

HIESaren aurkako taldea eratuta

Herri eta bailada mailan lan egiteko asmoz, dagoeneko eratuta dago Arrasaten HIESaren aurkako taldea. Taldearen lanak bi alderdi izango ditu: bata jendeari HIESaren errealtateaz jabetzea eragitea; bestea, prebentzioa. Lokalik ez duenez, taldearekin harremanetan jarri nahi duenak honako telefono zenbakietara dei dezake: (945) 25 77 66 Arabako HIESaren aurkako batzordea, edo 79 41 39 Udaletxeko Drogomenpekotasunen aurkako zerbitzua.

Taldearen lehen ekintza ekainaren 1etik 7ra egingo da, HIES-ari buruzko ihardunaldiak antolatu bait dira. Ihardunaldietan, besteak beste, hitzaldiak, mahainguru bat, musika jaialdiak, kale-antzerkia eta giza-kate bat egiteko asmoa dago. Ikus daitekeen bezala, ekintza gehienak jai girokoak izango dira, HIESaz entzuten den guztia nolabait desdramatizatzeko eta HIESaz hitz egin dadila lortzeko.

Ekintzen antolaketa ekonomikoki lagundu nahi duenak izango du aukerarik, bi kontu korrente ireki dira eta: Garibaiko Kutxan, 00.1013953.3 zenbakiduna eta LKA 001.0.03363.6 zenbakiduna.

Sententzia errekurritzeko asmoa

Ertzantzak atxilotutakoek "persekuzioa" salatu zuten

Iazko ekainaren 26an San Juanen barruan izandako istiluegatik epaitutako hamahiru gazteen aurkako sententzia errekurritzeko asmoa azaldu zuen Jon Usabiaga abokatuak, Udaletxean eskainitako prentsaurrekoan. Hamahiru gazteen abokatuak esan zuenez, epai-learen sententziak lau gazte aske uzten ditu, hiru 30.000 PTako isuna ordaintzera behartzen eta gainontzeko seiak 9 hilabeteko gartzela zigorra betetzera behartu. Fiskalak sententzia errekurritu egin du, motz gelditzen dela uste bait

du; defentsaren abokatuak, bere alde-tik, sententzia errekurrituko du bere ustez ez bait dago gazteen aurka inolako probarik. Gauzak horrela, orain behin betirako sententzia Donostiako entzutegiak jarri beharko du.

Prentsaurreko berean Ertzantzak astelehen goizean atxilotutako lau gazteen arteko batek hitz egin zuen, beraiek ez zutela ezer egin esateko eta Ertzantzaz gau osoan atzetik izan zutela. Ertzantzaren bertsioan euren aurkako irainak eta kolpeak jasotzen dira.

Pando

**PINTURAK eta
 PAPEREZTAPENAK**
 Aragoi, 6-3. Esk.
 ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

MUSAKOLA

OSTATUA

**Taberna
 Jatetxea
 Bazkariak
 Bodak
 Banketeak
 Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
 Tfnoa: 79 20 50

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina


Durana, 12 ARETXABAETA



—▲—
Jon Anduezak, Donostia hiria ipuin lehiaketako lehen saria jaso zuen pasa den larunbatean. Ekitaldian **Mari Carrilo**, aktorea famatua ere egon zen. Argazki bat atera eta oroipenean izateko aukera ezin hobea izango du. Hona hemen froga, Joseba Valles gure argazkilariaren enpeinuaz.



—▲—
Frantziskotarren aretoan, AEKren historia kontatzen duten 25 panel egon dira ikusgai aste osoz. Erakusketa hau **AEKjirak** antolatu dituen ekintzen artean sar daiteke. Paneletaz gain, aldizkariak, diptiko informatiboak, bitrinak.. .ikusteko aukera izan dugu.



—▲—
Astlehenean eman zitzaion amaiera Gizarte eta Famili Heziketarako Zentruan eginiko **eskulanen erakusketari**. Monterronen, tapizak, puntuzko lanak, zeramika, gantxiloa...

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora 7/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



Izen
PROPIOAK

● **Juan Carlos Gari-tano**, EAJko ordezkaria eta **Francisco Garcia**, PSOEkoa izendatu zituzten joan den asteko plenoan *Kutxako* asanblada orokorrerako udal ordezkari. Horiek noizbait huts egingo balute, ordezkoak **Ne-kane Iglesias** eta **Ma-risa Larrañaga** izango dira.

● Joan den asteartean Arrasate Komunikabideak, ARKO-ko asanblada orokorra burutu zen. Beste gai batzuren artean, ARKO-ko Zuzendaritza Batzordearen finkapena onartu zen. Aipatutako batzordea **Aran-tzazu Loidi, Agurtza-ne Ganzarain, Mikel Irizar, Iñaki Aran-buru, Juan Luis Are-xolaleiba, Jose Mari Larrañaga, Esteban Muruamendiaraz** eta **Asier Aranguren**ek osatzen dute.

▲ **Miguel Prieto, gutxitu fisikoen loteria saltzaileak**, Julen Arexolaleiba, Roberto Sanpedro eta Karmelo Zubillagari zenbakia saldu eta miloi erdina banatu zien. Pasa den astelehenean hirurak motor bat oparitu zioten Migeleri. Akordu polita!




◀ Ostiralean onartutako aurrekontuetan **Gurea zinemaren eraikina botatzeko** 10 miloiko diru kopurua izendatu zen. Hala ere, oraindik ez dira zehaztu bestelako baldintzak: noiz burutuko den proiektua eta Udalak ala inizatiba pribatuak eramango duen aurrera.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



Pasa den astearte goizean, **Batzokiko ikurriña la-purtu zuten**. Orain dela 15 egun gutxigorabehera ezezagun batzuk pintadak ere egin zituzten Batzokiko iturriek aditzera eman digutenez.




Aste honetan "Casa del pueblo" alboko atariko **kristalak berriz apurtu** dituzte. Dozena bat aldiz behintzat erasotua izan da eta kanpokaldetik ere pintadak beteta ageri da.



Asteazkenean **Hezibidek urteko bilera orokorra** egin zuen Aretxabaletan. Hezibide 10 ikastetxek osatzen dute. Aztertutako gaien artean honako hauek aipa daitezke orokorrean: urteko ihardunaldiak aztertu ziren eta etorkizunerako plangintza eta metodoak ere izan ziren aztergai.

20.30 - 21.00


MUGAZ GAIN



HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA



T x e m a
Auzmendi

OM 1.224 DONOSTIA

LOIOLA FM 99'8



Jauzi ederra

Zaila izaten da horrelakorik egitea: atezainarekin batera salto egin eta baloia buruz ikutzea. Jakina, denboraz salto egiten bada eta gainontzekoak begira gelditzen badira errazago bihurtzen da baloiari ematea. Dena dela, futbolean ez bezala, futbitoan buruz ondo jokatzeak ez du aparteko garrantzirik. Gol gehienak, hankaz.



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

- Errentamenduak
- Salmentak
- Balorazioak, etab.

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

fas print

Inprimaketa-denda

Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxa: 77 09 86



A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	5	4	1	0	30	7	9
Fosforos	5	4	0	1	26	14	8
Los Heredia	5	3	1	1	19	12	7
Fasprint	5	2	1	2	19	19	5
La Banda	5	2	0	3	14	22	4
Kajoi	5	1	1	3	12	17	3
Notxingan flo.	5	1	0	4	8	23	2
Hirei	5	1	0	4	13	27	2
Totala	40	18	4	18	141	141	40

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida	5	5	0	0	31	8	10
Akaitegi Express	5	4	1	0	34	12	9
Danok Lagun	5	4	0	1	18	10	8
Arrasate Kirolak	5	3	1	1	28	16	7
Gnu Seg. Bilbao	5	1	2	2	13	15	4
Adobe	5	1	0	4	14	33	2
AEK	5	0	0	5	7	35	0
Los Motz	5	0	0	5	13	29	0
Totala	40	18	4	18	158	158	40

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
G. P. Noski	5	4	1	0	20	12	9
Lorategi Potroak	5	4	0	1	27	13	8
V. C. Daglas	5	2	2	1	15	14	6
Pepelus	5	2	1	2	15	12	5
Artzankos Udal.	5	1	2	2	18	16	4
Zulu's	5	1	1	3	21	24	3
Diego Antonio	5	1	1	3	21	29	3
Jo ta akabau	5	1	0	4	12	29	2
Totala	40	16	8	16	149	149	40

Azken ihardunaldiaren ondorioz, zenbait aldaketa eman dira sailkapenetan, batez ere A multzokoan. Aipatutako multzoan, Fosforos zen liderra eta orain Argi Ibili da, Fasprint hirugarren eta orain Los Heredia da. B multzoan, berriz, gauzak zeuden bezala gelditu dira, ezer aldatu barik; bi hitzetan esanda Adelaida nagusi. Ażkenik, C multzoari dagokionez, aipagarria da G. P. Noski oraindik liderra dela eta aldaketak, ondorengo postuetan eman direla. Hau da, lehen ordena V. C. Daglas, Lorategi eta Artzankos zen; orain, ordea, Lorategi, V. C. Daglas eta Pepelus. Beraz, oraindik gauza asko daude erabakitzeko.




Jo ta akabau: Mikel, Sopas, Edu, Roberto, Fran, Rafa, Zigu, Kalbo, Toiu, Barri, Iban eta Soro.



V. C. Daglas: Nando, Jabi, Bittor, Elias, Ignacio, Santi, Fermin, Txema, Mikel, Boni eta Karlos.

JMA



Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu futbitoan ondo eta beldur barik jaurtitzek garrantzi handia duela. Gauza bera esan daiteke baloia oztopatzeko orduari buruz, orduan ere hanka inolako beldur barik sartzek du garrantzi handiena; nahiz eta batzutan berotu ederrak hartu.

Lorategi Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

EMAITZAK

A taldea

La Banda 4 Fasprint 3
Argi Ibili 6 Fosforos 1
Hirei 1 Notxingan Flores 3
Los Heredia 3 Kajoi taberna 1

C taldea

Diego Antonio 6 Zulu's 8
Artzankos 2 Pepelu's 5
V. C. Daglas 3 G. P. Noski 6
Lorategi Potroak 8 Jo ta akabau 3

B taldea


AEK 0 Arrasate Kirolak 12
Danok Lagun 4 Los Motz 1
Gnu. Seg. Bilbao 1 Adelaida 3
Akaitegi Expres 8 Adobe 3



M E S O N
M A N O L O

Eguneroko janariak eta enpresa bazkariak

Bañez Dokorea z/g



ARRASATE KIROLAK

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30

IOSEBA KONTENEDOREAK

Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

RUMBA taberna

Iturriotz Kalea
ARRASATE



Txutak

Ihardunaldi bero-beroa

Bi partidu besterik ez dira gelditzen Zaldibarko futbito txapelketako bigarren faseari bukaera emateko. Datorren asteburuko ihardunaldiak zer esan handia izan dezake, baina oraindik gauzak ez daude batere argi.

A multzoan, sailkapena ematen duten lehen bi postuak *Argi Ibili*, *Fosforos* eta *Los Herediaren* artean daude; B multzoan, berriz, sailkatzeko lehian sartuta *Adelaida*, *Akaitegi Express*, *Danok Lagun* eta *Arrasate Kirolak* taldeak; C multzoan, beste lau taldeen arteko lehia, *G. P. Noski*, *Lorategi Potroak*, *V. C. Daglas* eta *Pepelus*. Beraz, oraindik sailkatzeko

borroka bizi-bizian, inork ez bait dauka ziurtatura aurrerako bidea.

Borjoka hori zertan amaituko den ikusteko baliogarri izan daiteke asteburu honetako ihardunaldia, gauza asko erabaki ditzakelako eta seguruen erabakiko dituelako. Eta zer izango den ihardunaldi horretako interresgarriena? A multzoan *Los Heredia* eta *Fosforos* taldeen arteko neurketa, duda barik, zeren, bere aldetik *Argi Ibilik* erraz irabazi beharko lioke *Bar Kajoiri*. A multzoko partidoak interresgarriak badira, B multzoa pil-pilean jarriko da, sailkatzeko aukerak dituzten lau taldeek beren artean jokatzeko dute eta. Partidoak hauetxek: *Akaitegi Express - Arrasate Kirolak* eta *Danok Lagun - Adelaida Haizea*. C multzoko partidoa, aldiz, *Lorategi Potroak* eta *G. P. Noskiren* artekoa da.

B. KORTABARRIA

DATORREN ASTEAN

A taldea


La Banda	Notxingan Flores (Lar. 17.00)
Argi Ibili	Bar Kajoi (Lar. 8.50)
Hirei	Fasprint (Lar. 10.00)
Los Heredia	Fosforo's (lg. 12.00)

B taldea

AEK	Adobe (Lar. 15.00)
Danok Lagun	Adelaida (lg. 11.00)
Gnu. Seg. Bilbao	Los Motz (Lar. 11.00)
Akaitegi Express	Arrasate Kirolak (Lar. 12.00)

C taldea

Diego Antonio	Pepelu's (Lar. 16.00)
Artzankos	Zulu's (lg. 8.50)
V. C. Daglas	Jo ta akabau (lg. 10.00)
Lorategi Potroak	G. P. Noski (Lar. 13.00)



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabiloia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11




Foruen

Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16
ARRASATE



B E T I S E G U R U



MIKEL LASAS
Aseguru artekaria

Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43

ITURRIOTZ

TABERNA



GIRORIK
JATORRENA !!
Tfnoa: 79 16 04



Fedearen krisialdia

Aspaldi honetan fede krisiari buruz asko hitzegiten da. Jendea, hoztuta dabil eleizaren inguruan, baina zergatik? Horri buruz luze hitz egin zuten mahainguruan bildu genituen lau lagunek.

Iñaki Berezibar: Fede krisia eta baloreen aldaketa ez dira gauza bera. Poztuko nintzateke krisi estrukturala balitz eta benetako aldaketa ekarriko balu. Guk txikitzen ezagutu dugun eta inposatu zaigun fedea, eliza bera, aldatu egin beharko litzateke. Egungo gizartean dogmatismo eta debekuetan oinarritutako elizak ez du zentzurik. Krisia logikoa da.

Balore aldaketa beste gauza bat da, gaur egun gizartea beste modu batekoa da eta.

Jon Ancin: Uste dut lotura dutela. Lehen balore gehienak elizak sortutakoak ziren, kristau eta humanoak. Gizartea aldatu egin da eta elizari uko egiten dio, harremanetan aldaketa dago. Orduan, beste oinarri bat aurkitu behar da "*lehen elizak esaten zidalako nintzen bakezalea, orainzergatik?*"

Jose Luis Arrizabalaga: Erljio esperientzia eta esperientzia hori bizitzeko era bereiztuko nituzke. Elizak denbora gutxi arte modu batera bizi izan du eta orain

beste gizarte diferente batean bizi gara, kultura erabat aldatu da eta oraindik ez dugu bilatu esperientzia hori bizitzeko bide egoki bat.


Arrate Landa: Ez dut uste sakoneko aldaketarik izan denik. Elizan, instituzio bezala zer aldatu da? bere pribilegio guztiei eutsi nahi die.

Iñaki Berezibar: Uste dut garbi bereiztu behar dugula fedea izatea eta eliza, jerarkia. Eliza betik atzerakoitasunaren aitzindari izanda eta. Gauza bat da indarra egitea eliza barruan aldaketa egite-

ko eta beste bat gizartea aldatzen saiatzen dela, eta hori oso grabea da. Gaur egun, kristau izatea beste modu batera ulertzen dutenak, hegoamerikan kasu, ixilarazi egin ditu elizak.

Jose Luis Arrizabalaga: Zuretzat eliza jerarkia da?

Iñaki Berezibar: Neurri handi batean bai. Aipatzen denean, "La iglesia católica" esaten da eta horren erudia ez da izaten herri txiki batean fedea modu jator batean eramaten duen pertsona bat, goikoren bat izaten da.



Arrate Landa eta Jose Luis Arrizabalaga

Jon Ancin: Aldaketa egonez gero behetik sortuko da. Jerarkiak ez du emango lehen pausua; baseak egiten duena ikusiko du, oinarririk sortuko da aldaketa.

Iñaki Berezibar: Jerarkia publikoki onartu ez duten guztiak elizatik kanpo gelditu dira. Eliza ez da jerarkia bakarrik, baina bai jerarkia hori onartzen dutenak bakarrik, bestela ez dauka lekurik.

Arrate Landa: Elizak, onartuko lituzke aldaketak?

Historikoki norbaitek jerarkiak esandakoaren aur-

kakoa esan duenean, kanpo gelditu da.

Jose Luis Arrizabalaga: Fede krisiaren arrazoen artean kristau izateko dauden zailtasunak agertzen dira.

Esaten dituzuenak ez ditut ukatzen, baina niretzat barruko objezioak askoz ere gehiago dira. 25 urte badira apaiztu nintzenetik eta asko saiatu behar izan dut nere buruari arrazoiak emateko.

Iñaki Berezibar: Ideologija edo fede batek gizakiaren beharrak asetzen ez ditue-
nean egiten du kale. Logikoa

iruditzen zait dena pekatu bihurtu duen fede, erlijio edo eliza honek, jendea ez asetztea. Esan duzu izugarrizko sakonketa eta ahalegina egin behar izan duzula; hori baino askoz ere sinpleagoa izan behar da, jendeak ez dauka horretarako adimenik, astirik edo kapazidaderik... orduan jendeari gauza sinpleagoak eman behar zaizkio. Eta sinplifikatuz gero, eliza frustrante bat agertzen da.

Jose Luis Arrizabalaga: Gizona gizalditan zehar erlijiosoa izan da. Erlijioak gi-

zonari bere nortasuna izaten eta bizitzari erantzuten laguntzen dio.

Arrate Landa: Pertsonen erlijiotasuna aipatu duzu. Bizitza neure kasa egin nahi dut eta ni naiz egiten ditudan eta egiten ez ditudan gauzen arduraduna. Hauts eginda nagoenean nire buruari galdetzen diot "zergatik ez daukat jaungoiko bat?" momentuko samina apur bat txikitzeko. Kasu askotan erlijioa muleta bat izaten da.

Jon Ancin: Elizan gelditzen direnek fedea sakondu behar dute, orain arte, katekesi eta domeketan prediku batzuk botatzea izan da eta uste dut horrek ezin duela pertsonaren fedea bete. Jende askoren fedea predeterminazioan oinarritu da eta asuntoa ondo badoa ez dago arazorik, baina zerbait gertatzen denean, errua nori? ba Jainkoari. Hor ez dago benetako federik.

Iñaki Berezibar: Faktore soziala ere kontuan hartu behar da, jai bihurtu diren ekin-tzak eta gero edonork dauka elizatik ezkontzen ez bazara



Iñaki Berezibar
Euskara irakaslea

"Sinplifikatuz gero, jendearen aurrean eliza frustrante bat agertzen da"



Jon Ancin
Irakaslea eta frailea

"Aldaketa behetik sortuko da, jerarkiak ez du emango lehen pausua"



J. L. Arrizabalaga
Frantziskotarra

"Fede krisiaren arrazoen artean kristau izateko dauden zailtasunak ageri dira"



Arrate Landa
Irakaslea

"Norbaitek jerarkiak esandakoaren aurka egin duenean kanpoan gelditu da"

moskeatzen den izebaren bat.

Jon Ancin: Hor, zu zeu izatea dago apur bat, amari gustoa emateko eleizatik pasatu? nork egiten du kalte gehiago?

Jose Luis Arrizabalaga: Hori baino gehiago esango nuke, gu gara gugana datorrenari zintzotasunez etortzeko eskatzen diogunak. Kasu bat baino gehiago tokatu zaizkit horrelakoak eta esan diet kontzientzia ikusi eta askatasunez aukeratzeko.

Iñaki Berezibar: Hori kristau jokatzeari bada, zuk baldin baduzu izeba zahar bat eta min egiten badiozu, bost axola nola ezkondu!

Arrate Landa: Hortan ez nago ados, askotan elizari exijitzen dioguna gero gu ez bait gara egiteko gai. Izeba edo ama zahar horri norbaitek esango balio zu *lasai hau ez da ez hobea eta ez txarra goa*, beste modu batera hartuko lukete asuntoa.

Jose Luis Arrizabalaga: Aspalditik esaten ari gara behartuta ez duela balio, ofizialki esanda dago. Behartutakoa ez da benetako erlijioa, itxurakeria besterik ez da.

Gaur egun inor ez da baitaiatzera behartzen. Esaten duguna zera da: zuk uste baduzu ume honi, kultura heziketa eta erlijio bat ematea gauza ona dela, bada orduan bataiatu. Hala eta guztiz ere, eliza eztabaidatzen ari da eta batek baino gehiagok esaten du hobe izango litza-tekeela geroago ematea.

Jon Ancin: Bataioaren



Jon Ancin eta Iñaki Berezibar

ondoren dator sendotza eta hor norberak aukeratzen du. Sendotzan gero eta jende gutxiago sartzen da, jendea ausartu egiten da ezetz esatera.

Jose Luis Arrizabalaga: Sendotza benetako bataioa da. Bideratze bat badago, baina hemen ez dago sekula neutraltasun osorik, eta gurasoen erresposabilitatea egiten da horren arduradun.

Arrate Landa: Ez duzue uste hor badaudela interes batzuk? Bataiatutako jendearen arabera dauden sudentzioak esaterako.

Iñaki Berezibar: Datu horiek bai erabiltzen dituela elizaren jerarkiak, ez bakarrik arazo izpiritualetaz hitz egiteko, edozeri buruz hitz egiteko ere bai.

Jose Luis Arrizabalaga: Jesusek dio elizan zerbait handi izan nahi duenak besteen zerbitzari izan behar duela. Batek bere bizitza utzi eta ez dakit zer tokitara joatea zuentzat propaganda egitea izango da, guretzat bizi-

tza osoa ematea da, eta hori egiteko amasa, indarra eta izpiritua behar da.

Arrate Landa: Ez daukat arazorik Ertamerikan egiten den lanarekin.

Jon Ancin: Horiek ere eliza dira eta kopuruei begirada bat ematen badiegu, elizak baino inork ez du jende gehiago bidali. Orain arte izan dira mojak, apaizak,

baina orain sekularrak.

Arrate Landa: Ados nago, baina hor kontradikzio bat ikusten dut, barruan dagoen jendearengan: alde batetik, herriarekin batera borrokan dabilen jendea eta gero, goian boterearekin dagoen jerarkia ikusten dut.

Jose Luis Arrizabalaga: Esango nuke goian daudenek ere herriaren ona nahi dutela.

Laburbilduz

Iñaki Berezibar: Erabateko aldaketa gomendatuko nioke elizari: bizitzaz egiten duen irakurketa, debe-kuak etab.

Jon Ancin: Fedea ondo oinarrituta etorriko da aldaketa. Eliza eta mundua aurrera ateratzeko talde-lana egin behar dugu eta amankomunean ditugun gauzak aurrera atera.

Jose Luis Arrizabalaga: Kristau garenok, gure kristautasuna sakondu behar dugu, ebanjelioaren baloreak, egia, maitasuna, elkartasuna, pakea etab. egi bihurtu behar ditugu.

Arrate Landa: Bakoitzak sinesten duena aurrera eramatea oso ondo ikusten dut. Instituzio bezala orain dituen pribilegioak alde batera uztea eta gizartean dauden beste egi batzuk errespetatzea eskatuko nioke.

“EDERTU” ileapaindegia



San Andres auzoa. 79 04 28

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak, Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

ARRASATE PRESS



77 05 65



Mendi-zinema zikloa

Hil honen 6an hasi eta 10era bitartean, mendi-zinemako zikloa burutuko da Arrasateko San Viator txiki aretoan. Lehen egunean, "K-2 Mendi handia" filmea izango da. Asteartean, "Ur zuriak" eta "Horrela mintzo zen zaratustra". Hirugarren egunean, "Ur lasterrak" eta "Hiriak liluraturik". Ostegunean, "Azken erronka" eta ostiralean berriz, "Laberinto urdina" eta "Haizeen mendia". Filme guztiak gaueko 10etan izango dira eta sarrera dohan izango da. Iraupenari buruz, gehienak ordu erdi edo ordu betekoak direla esan behar.




Mondrak irabazi zumaiarrei

Emakumezkoen Mondra taldeak ez zuen aurkakorik izan Zumaiako taldean. Partiduko lehen zatian, kostaldekoek lortu zuten nolabait arrasatearren erasoei eustea, baina bigarrean arrasatearrak nagusi izan ziren eta partidua 4-0 irabaztea lortu zuten. Kopa barruan arrasatearrek oraindik ez dute partidurik galdu eta datorren astean Anaitasunaren aurka jokatuko dute, Azkoitian.

Hurrengo partidua

Ez dakigu ultimatium-ik zegoen edo ez, baina Mondrak aspaldi ez zuen erakusten aurpegia erakutsi zuen joan den aste-ko partiduan. Egia esan, aukera ezin zitekeen hobeia izan, zein etorriko Atxabalpera? eta Abetxuko taldea sailkapeneko azken postuan zegoen eta dagoen, gogortasuna besterik erakutsi ez zuen taldea hain zuzen ere. Mondragoetarrak jaun eta jabe izan ziren eta ondorioz, sailkapenari begira, arnasa lasaitzeko balio izan die horrek.



Orain mondragoetarrak sailkapeneko hamahirugarren postuan daude eta horri eusteko behintzat balio izan zuten igandean lortutako bi puntuek.

Joan den astean Atxabalpen azken sailkatua izan zen moduan, asteburu honetan Real Union bisitatuko dute mondragoetarrek, kategoriako liderra. Beraz, zuritik beltzera pasatzea bezala. Dena dela, arrasatearrentzat, galdu, irabazi edo berdinketa lortuta ere, gauzak ez dira partidu horrekin amaituko eta hemendik aurrera asteroko partidua asteroko final bihurtuko da. Zergatik? goiko postuak baino gertuago daudelako behokoak, ez beste ezergatik.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz


oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

PODIUMA

ALBERTO ROLDAN

Anaiaren urratsen atzetik



Hamasei urte besterik ez dauzka Alberto Roldanek, baina horietatik zazpi bizikleta gainean daromatza. Hori bai, orain bi urtera arte txirrinduan ibiltzeaz gain futbolean ere jokatzeko zuten, Almeneko taldean. "Gezurra badirudi ere, futbola eta txirrindua antzerakoak dira, biak oso gogorak direlako. Behar bada bizikletak futbola baino denbora gehiago eskatuko du".

Bere anaia Iñigoren pausuen atzetik doa Alberto, konparaziorik nahi ez badu ere. Joan den astean Albertok, orain bi urte bere anaia Iñigok irabazitako toki berean garaipena lortu zuen, Uzarragarako igoeran. Helmutarako hogeitamarren bat kilometro falta zirela beste hamahiru lagunekin tropeletik ihes egin zuen Albertok, eta Uzarragako maldetan beste hiru lagunekin batera joan. Sprintean bera izan zen azkarrena. "Aurten irabazten dudan lehen lasterketa izan da eta taldearen lanari esker lortutakoa gainera. Orain arte postu onak egin ditut, baina garaipena lortu barik nengoen. Horrelakoetan poz handia sentitzen da, ez da beste ezertan pentsatzen. Topera nagoen? ez,

oraindik ez".

Txirrinduari futbolari baino ordu gehiago eskaintzen zaizkiola aitortu zuen Alberto Roldanek eta egia esan, asteko zazpi egunetatik bostetan entrenatu behar izaten omen dute. "Entrenamenduak ez dira oso gogorak izaten, 60 eta 80 kilometro artekoak. Entrenamenduak bata bestearengandik oso desberdinak izaten dira, sendagileak asteburuan jartzen digun planaren arabera".

Albertok, oraingoz behintzat, txirrindularitzan ez du aparteko gauzarik egiteko asmorik, ibiltzea besterik ez eta ahal bada, beste lasterketaren bat irabazti. Lemond eta Marinoren moduko gizonen ibiltzeko era miresten du eta nolabait beraien antzekoa izatea gustatuko litzaioke. Kirola edo lehiaketa? "Beno, nire ustez edozein modutara har daitezke, nik biak batera hartu ditut, kirola egiten dut eta era berean lehiaketetan parte hartzen dut".

◆ Brues, berriz garaile

Construcciones Brues taldeak garaipen berri bat lortu zuen joan den larunbatean Iturripen jokaturako partiduan. Arrasatearrek Laneder taldea izan zuten aurrean eta erraztasunez irabazi zuten, 7 eta 3ko emaitzaz. Garaipen horri esker, Arrasateko taldea sailkapeneko bigarren postuan dago, liderrarengandik bi puntutara baina partidu bat gutxiagorekin.

◆ Centraljet-eko neskek erraz irabazi

Emakumeen Centraljet saskibaloit taldea denboraldi ona burutzen ari da, etxeko partiduetan behintzat. Joan den astean UPV-EHU taldearen aurka jokatu zuten eta baita erraztasunez irabazi ere, 67-61. Datorren astean arrasatearrentzat gauzak ez dira hain errazak izango, Tabirakoren aurka jokatu behar dute eta.

◆ Pilotan ez oso ondo

Igandean jokatzeko bazen ere, Deba Arroa txapelketaren barruan azkenean asteartean jokatu zen Bergara eta Arrasateko pilotarien arteko neurketa. Norgehiagoka, Bergarakoen aldekoa izan zen, hiru partidutik bi irabazi zituzten eta, infantiletan, 7 - 18; jubeniletan, 22 - 7; eta nagusietan, 20 - 22. Datorren astean, Aretxabaletaren aurka, asteartean arratsaldeko 7.30etatik aurrera. Euskal Ligan igandean Azkoitiko taldearen aurkako partidua jokatu da, eguerdiko 12etatik aurrera Iturripen.

◆ Txirrindulari lasterketa

Igande honetan, goizeko 10.30etatik aurrera, kadete mailako txirrindulari lasterketa burutuko da Musakolan. 120ren bat txirrindulariren parte hartzea espero da eta 40 kilometroko luzera izango du. Txirrindulariek Eskoriatza eta Oñatira joan beharko dute.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91



**IREKI
BERRIA!!!**

SORALUZE OSTATUA

- Jangela handiak
- Logela ederrak zerbitzu guztiakin
- Eguneko menua eta karta
- Ezkontzak, banketeak, bataioak, enpresako bilerak...

Arantzazurako bidea z/g Tfnoa: 71 60 70 Faxa: 71 61 79 OÑATI




Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



**Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...**

OBJEZIO BULEGOA



- Tramitazioak
- Aholkularitza

Informazioa:

- Objezioa
- Intsumisioa
- Post-mili
- Emakumeen objezioa

Informazio-zerbitzua:

Garibai Etxea. Astelehen eta asteartetan 5.30etatik 7etara Tfna: 77 00 65

ARRASATEKO ANTIMILITARISTAK

HITZALDIA

Islama eta herrien independentzia

Hizlaria:

Sheij Aderraman Vu's muri Zwane

(Hego Afrikako musulmanaren emirra eta zuluaren buruzagia)

Apirilak 8

ASTEAZKENA Arratsaldeko 7etan

Udaleko Pleno Aretoan

(Aldi bereko itzulpena egingo da)



Parrokiako artxiboaren katalogazioa, lan aberatsa

■ azko Jose Letona be-
kak Arrasateko parro-
kiko artxiboa antolatu eta
katalogo bat ateratzeko balio
izan du. Katalogo horren
aurkezpena joan den astean
egin zen Udaletxean, bertan
egileak eta Udal-ordezkariak
zeudela.

Bekaren helburua parro-
kiako artxiboa ikertzaile
posibleentzat antolatzea izan
da, tresna erabilgarri izan
dadin. Lana bukatu eta gero,
artxiboko dokumentoren bat
begiratu nahi duena hiru
gauzaz balia daiteke: fitxate-
gi arrunta, inprimatutako ka-
talogoa, eta datu fitxategi in-



Parrokiako artxi-
boaren aurkezpena


formatikoa. Katalogoan
erreferentzia soilak agertzen
dira: dokumentoaren data,
neurria, egoera, egilea nor

den, dokumentuaren edukia
eta non aurki daitekeen; bai-
na informatizatutako fitxate-
gian dokument osoak ikus

daitezke.

Kuriositate ugari ikus
daitezke parrokiako artxi-
boan: gertatutako mirari bat,
famiariatekoak ezkontzeko
egin behar zituztenak, here-
dentiak kobratzeko paperak
etab. Dena dela, behar bada
garrantzitsuena Arrasateko
bizitzan gertatu den ebo-
luzioa ikusteko izatea, kata-
logoaren egileen ustez oso
artxibo aberatsa bait da.

Katalogoa parrokiako ar-
txiboan eta Udal artxiboan
kontsultagai izango da nahi
duenarentzat, beti ere doku-
mentoa ikusteko artxibora
joan beharra izango bada ere.



**17 urtetik gora badituzu eta AEDko
UDALEKUETAN begirale bezala parte
hartu nahi baduzu zatoz lehenbait lehen
izena ematera edo deitu 79 54 46 tfnora.**

Gaur ostirala,  **KAJOI** kafetegian
gaueko 10.30etatik 12etara "Ana Codorniu" Cava
edatera gonbidatzen zaituztegu.

ANIMATU ETA
ZATOZTE ÇURERA!

ÇODORNÍU

◆ **Pandero ikastaroa**

Apirilaren bigarren aste-tik aurrera, panderoa jotzen ikasi nahi dutenentzat ikastaroa antolatu du Trikiritxa Eskolak. Ikastaroak lau hilabeteko iraupena izango du eta astero ordubeteko eskola emango da, ostiralero seguru-ruen. Matrikularen prezioa 1.500 PTAKoa da eta izena emateko Hire liburudenda-tik pasatzea besterik ez dago. Izena emateko epea apirilaren 8an bukatuko da.

◆ **26 partaide logotipoetan**

Nahiz eta hasiera batean, Ibai-arte logotipoen lehiaketarako epea asteartean bukatuko zela uste, gaur arte luzatu da. Asteazkenean 26 sobre ziren aurkeztutakoak, bakoitzak logotipo bat baino gehiago izan dezakelarik. Irabazlearen izena apirilaren 30an emango da ezagutzera eta saria 40.000 pezetakoa

◆ **Kamara kontzertua**

Atzo Arrasate Musikaleko Aretoan Kamara kontzertua bat izan zen. Guztira 8 obra jo ziren; Mozart, Bach, Weissenborn eta Josef Fialaren obrak. Erabilitako musika tresnak biolin, biolonce-lo, fagot, oboe eta pianoa izan ziren gehien bat. Akademiako Jose Juan Llopis irakaslearen aginduetara, 15-20 ikaslek frogatuta utzi zuten musika mailan duten tre-bezia.

Mikel Arregi

Artea ikasi eta musikan dihardu

Donostian Historia ikasten zegoela, artearekiko interes berezia sartu zitzaion Mikel Arregiri eta Madrileran joan zen ikasketak arte adarretik amaitzera. Ikasketak burutu, Arrasatera bueltatu zen eta orain Goikobalun dabil buru belarri sartuta.



— **Zergatik artea?**
— Beno, Donostian Historia ikasten nengoen eta Historia Modernoa ikasteko asmoa nuen, baina irakasle on batek Artea egiteko komentzitu ninduen.

— **Eta badago artearen kontura bizitzerik?**

— Oso zaila da. Dagoen irteera bakarra klaseak ematea da, eta irakasle kopurua aspalditik dago beteta.

— **Zuretzat zer da artea?**

— Bost urte pasatu ditut ikasten eta zail egiten zait artea zer den argi azaltzea. Nik esango nuke, artea barruan dagoen zerbait nolabait espresatzea dela. Argi dago gaur egun, kontzeptu horren barruan, edozer gauza sar daiteke-ela; beraz, oso esparru zabala da.

— **Artearen garairik aberatsena?**

— Aberatsena? aberatsena esango nuke gaur egungoa dela. Ez dakit lehen egiten zena baino hobeia izango zen, baina nire ustez Institutzioak arte-munduan sartu direntik arteak galdu egin du La Boheme deitzen zitzaiona; hau da: gosea pasatzea.

— **Arrasate nola ikusten duzu?**

— Ondo dagoela iruditzen zait, maila polita dagoela. Orain urte batzuk, Arte Hamabostaldia medio,

gorakada bat izan zuen eta orain aparkatuta moduan dago. Dena dela, inguruko herriekin konparatuz gero, uste dut arrasatearrok zorte handia dugula, artearen maila oso aberatsa da eta.

— **Artea alde batera, Goikobalu...**

— Zaletasun handi bat da niretzat, burua jan didana gainera. Oso pozgarria iruditzen zait jendearekin batera kantatzea, eta gustora eginez gero, ez du lan handirik eskatzen.


— **Zergatik kantatzen?**

— Ez dakit, betidanik izan dut musikarako eta kanturako gustoa eta zaletasuna.

— **Goikobalu nola dago gaur egun?**

— Goikobalu? nire ustez inoiz baino hobeto! Oso maila ona lortu dugu, baina maila horri eustea ez da bat ere erraza. Horretarako aspirazio ugari dugu eta aurrera begira proiektu berri asko, horrek esan nahi du abesbatza bizirik dagoela eta horixe da onena. Orain, ikasketak medio, hamarren bat neska joan egingo dira eta behar bada hortik oreka galduko dugu; jende berria lortu beharko dugu.

▼
"Burua jan didan zaletasun handi bat da Goikobalu"

Onduline TXOMIN HERIZ

 eraikuntzarako materialak
 Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfoa: 79 23 18

EPELDE
 argazki denda
 Iturriotz, 24

Aste gazte

Rimbaud gazte grinatsuak,
zera zion: "Ni bestea naiz".

Lana

• Inghaterran: nekazaritzalana (fruta eta barazki-bilketak,...) Ekaina-Urria. 19-25 urte bitartekoei zuzendua.

Ikastaroak

• 3. Adinarekin Monitore, Donostian, Apirilaren Maiatzean. Teoriko-praktikoa. Aisialdia edo 3. adinakoekin esperientzia duten 21 urtetik gorakoei zuzendu-



ta. Matrikula epea: Apirilak 9. Prezioa: 20.000 PTA.

Dirulaguntzak

• Emakumeei buruzko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzak. Gaiak: emakumeen historia Euskal Herrian, osasuna, aisialdia, sexualitatea, marginazioa,... Dirulaguntza, gehienez, miloi batetkoa izan daiteke. Epea: Apirilak 26.

Lan-praktikak

• Mejicon: alfabetizatze-lana, hezkuntza, sanitata,

eraikuntza,... Hasiera: Uztailaren 3an. Iraupena: 3 hilabete. Betebeharrak: 21 urtetik gora, lan-esperientzia edota titulazioa, osasun ona. Prezioa: 75.000 PTA eta bi-daia.

Lehiaketak

• Komiki-Lehiaketa, 16-30 bitarteko gazteei zuzendua. Gai librea. Sariak: 100.000, 60.000 eta 40.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: Apirilak 22.

• "Urruzuno" Literatur Lehiaketa. Lanek euskaraz sortuak izan behar dute, pro-

saz nahiz poesiaz, bertso paperak barne. Irakaskuntza ertainetako ikasleei zuzendua (2 kategoriatan berezita). Gai librea. Sariak: guztira, 20 sari (10 eguneko bidaiak, 30.000 PTA eta oroigarria). Lanak aurkezteko epea: Apirilak 30.

• "J.M.F." Ipuin-Lehiaketa, 18 eta 35 urte bitartekoei zuzendua. Gazteleraz; gaia librea izanda, giza-baloreak azpimarratzen dituzten lanak gehiago baloratuko dira. 3 eta 6 orrialde bitarteko lanak. Saria: 75.000 PTA eta oroigarria. Lanak aurkezteko epea: Apirilak 18.

LIBURUAK SALGAI!!

Herriko balore berriek landutako literatura eta artea dastatu nahi badituzu, hauxe duzu aukera ezin hobea.

'Lehiketak 90' 500 PTA
'Lehiaketak 91' 1.000 PTA
Biak batera 1.300 PTA

SALGAI: AEDn, Zabaltzenen eta Hire liburudendan.



AED Lehiaketen LIBURUAREN AURKEZPENA

AEDko lehiaketetan irabazle izan ziren lanez osatutako liburua

Aurkezpenean izango direnak:

Literatur tertulia **Jon Anduezak** bideratu eta animatuko du, liburuaren kritika literarioa eginez eta irabazleei zenbait galdera botaz.



Andoni Urzelai
(Ipuinetako irabazlea)



Jabi Tramon
(Ipuinetako II. saria)

Apirilaren 9an OSTEguna
Arratsaldeko 7etan Udaletxeko Pleno Aretoan

LUNTXA ERE IZANGO DA!



Danel Goikolea
(Bertsoetako irabazlea)



Amaia Agiriano
(Bertsoetako irabazle gaztea)

ETXEBIZITZAK

- Lau gelako etxebizitza behar da alokairuan. Tfnoa: 79 33 59.
- Pertsona bat behar da hiru irakaslerekin pisua konpartitzeko. Dei egin ordubatek 2etara. Tfnoa: 79 71 16.
- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza Arrasate edo inguruetan. Tfnoa: 77 04 58.
- Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 3 logela egongela-jangela, sukaldea, ganbara. Altzariak ipinita. Dei egin 79 10 47 tfnora.
- Etxebizitza behar dut alokairuan. Tfnoa: 79 51 21.
- San Andresen etxebizitza salgai. Sukaldea, bainugela, 3 logela eta sotoa. Tfnoa: 79 91 73.
- Ekainetik aurrera, ekaina barne logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten. Interesatuek dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- Bi neskek etxea behar dute alokairuan Arrasate edo inguruetan. Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Gotzone edo Maite.

- Ostiral edo larunbatetan ingelesa erakusteko norbait behar dut. Tfnoa: 79 38 01.
- 23 urteko neska gertu etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 97 30.
- Fisikako klase partikularrak emateko fisikaria behar da (Euskaraz edo erdaraz). Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu. Gaez nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.
- Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 8etatik aurrera 77 00 50 tfnora.
- Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu nago asteburuetan. Tfnoa: 79 24 58.
- Pertsona bat behar da ingelesa irakasteko. Tfnoa: 79 72 47.
- Eskoriatzan klase partikularrak emango nituzke matematika eta fisika). Talde txikietan (4koak gehienez). Erdaraz. Tfnoa: 79 34 26.
- FP2 mailako kimika irakatsiko didan norbait behar dut. Dei egin 79 50 53 tfnora.
- Aretxabaletan neska bat behar da umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 04 76.
- Aretxabaletan andra euskalduna gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 79 07 75.

- la berria dagoen akordeoia salgai. 120 baxu. Beltza. Dei egin gaez 79 80 91 tfnora.
- Kotxeko gurgipen kubiarta bi salgai. Oso egoera onean. Michelin MXV2, 185-60-13 neurrikoak Tfnoa: 79 03 88.
- CDU ur-berogailua salgai (Duplex) Fagor, oso egoera onean. Tfnoa: 79 09 52.
- Peugeot markako paseoko bizikleta eta Orbea Siroko karreterakoa salgai. Gutxi ibilitakoak eta oso egoera onean. Karreterakoak barruko frenoak kilometroak kontetako eta platuak karreratakoak ditu. Dei egin 79 71 30 tfnora. Aitor.
- Renault 4 zuri eder bat salgai. Egoera onean dago eta gainera merkea. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!

DENETARIK


- Ehiza-txakur bat erregalatu nuke, txertatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Otsailaren 4ean Urkulun eguzkitako betaurrekoak galdu nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, dei dezala 79 21 50 tfnora.
- Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zurea bada dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- Egunero Bilbora joateko kotxe baten tokia behar dut. Tfnoa: 79 31 47.
- Musika talde afizionatu batek teklista behar du. Tfnoa: 73 01 17.
- Urrezko belarritakoa galdu da. Inork aurkituz gero dei dezala 79 53 21. Saritua izango da.
- Giltzak galdu nituen Monterron aldean. 9 giltza kartera bati lotuta. Aurkitu badituzu, Arrasate Pressera ekarri. Eskerrik asko.
- Astelehen goizetan zazpiak laurden gutxiago aldera Donostiara kotxez joaten dan norbaitekin egongo ginatke. Tfnoa: 79 13 83.

LANA

- Neska bat behar da ingelesa erakusteko. Tfnoa: 77 10 59.
- Esperientziadun pertsona, nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 77 10 59.
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu neska gaztea. Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- Andre euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.

SALEROSKETAK

- Eski alpino egiteko bota pare bat salgai. 43a berri-berriak, bi hilabete besterik ez dituzte. Tfnoa: 76 38 72.
- Mendiko Camet bota pare bat (44 zenbakikoak) salgai. Erabili barik eta oso merke. Tfnoa: 76 24 64. Joxemiel.
- Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuek dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Marcelina Molina Perez,
martxoaren 25ean. 95 urte.

Alberto Arizaga Elgarresta,
martxoaren 25ean. 85 urte.

Maria Zenarruzabeitia Aboiz,
martxoaren 25ean. 86 urte.

Felix Barrutia Guridi,
martxoaren 27an. 86 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Esther Goikolea

Kide paperdendakoa

- **Idazteko rotuladorea ala arkatza?** Rotuladorea, finagoa da eta.
- **Osasuna ala dirua?** Osasuna dudarik gabe.
- **Egunkaria ala aldizkaria?** Biak, baina inportanteagoa egunkaria da.
- **Zientzia ala letrazko karrerak?** Letrazkoak.
- **Publizitatea gustokoa ala ez?** Bai, nahiz eta batzutan modu desegokian egin.
- **Errekan ala hondartzan bainatzea?** Hondartzan badaezpada.
- **Mafalda ala Mortadelo eta Filemon?** Mafalda.
- **Erropak erosteko Arrasate ala Donostia?** Arrasaten, tratua pertsonala da eta.
- **Etxeko liburuak ala liburutegikoak?** Liburutegiak aukera gehiago du lan batzuk egiteko.
- **Kanpora joatekotan, autobusez ala kotxez?** Kotxez, komodoagoa da.
- **Lana egiteko ordenadorez ala eskuz?** Nik ohitura bezala, eskuz. Ez naiz ordenadore arloan sartu.
- **Baserria animaliekin ala barik?** Animaliekin.
- **Asteartea 13an ezkonduko zinateke?** Bai, zergatik ez.
- **Gurutzegramak ala letra zopa?** Gurutzegramak.
- **Erreportaia ala pelikula?** Erreportaiaren gaia interesgarria bada...
- **Bixigua ala angulak?** Bixigua.
- **Ume txikientzat neska ala haurtzaindegia?** Haurtzaindegia, heziketa sailkatuagoa dutelako.
- **Oporrak abuztuan ala irailean?** Abuztuan hartzen ditut, baina gustatuko litzaidake beste edozein hilabetetan hartzea ere.
- **Naturistetan sinismenik bai?** Bai, beste aukera bat da.
- **Ospakizunak gogoratzeko bideoa ala argazkiak?** Orain arte argazkia izan da normalena baina bideoak badauzka bere abantaiak.



Bertsotan

92a

1
Larogeitamabian gauz
hauxe miseria
iritsi zaigu ordua
hasi protestia!
ezingo dugu jasan
aurtengo egoeria.
Erreza ez da izaten
hemen bizitzia.

2
Guzti honen atzetik
kapitalismoa dau
zein izan leike oster
kapaz jartzeko hau.
Aberastu nahi duenak
horrela du montau
gauza denak garesti
ta poltsikua inflau.

3
Gero esango dabe
"Krisis"a dauela,
ze karajo inporta haiei
hementxe dauena:
jende asko lan gabe
jan bila kalera.
Hau da esaten dutena
dela aberastea.

92a politiko eta dirudun batzuen interes
ekonomikoez eragindako ospakizun fartsa.
Ez 92!

GAZTETXEKO NORBAIT



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



Ospitale Zaharra, 1913-14

K

aritateko Mertzedariek herrian 100 urte bete dituztela eta argitaratutako argazki zaharren oihartzu-

nean, beste batzuk ere iritsi zaizkigu. Aste honetan dakarguna Ospital Zaharreko ortuan aterata dago, mertzedaria bi eta adin ezberdineko

neskatila mutikoeekin. Harrez gero, batzuk hil egin dira gerra denboran, eta bizi direnek ere ez dakite beste askoren izenik. Goiko lerroan eskumatik hasita **Maria** eta **Natalia Berezibar** lehengusinak eta zazpigarrena **Maria Kristina Altube** ote den esan digute. Bigarren iladan eskumatik **Bittor Bastida** Xagunekoak, hurrengoak ezezaguna, **Usatorre**, **Rosario Lasagabaster** eta **Bastida** familiako bat. Hurrengo lerroko lehen mutiko biak **Eusebio** eta **Roman**

Berezibar anaiak, biak gerra garaian hilak eta alboko neskatila ere **Bastidatarra**. Lerro berean seigarrena Ospitalean jasota zegoen neskatila bat, **Axun** izenekoak. Lurrean eserita daudenak, eskumatik hasita **Bittor Berezibar**, **Patxi Plazeroren** seme-alabak eta **Zezilia Berezibar**. 1913-14 urtea izan behar zuen eta argazkian ere dotore asko ageri diren arren, igandetako meza nagusitara joateko uniformea jazten ei zuten garai hartako.



Zurgin Kantoi, 2


Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Argitasun
8. Entzumenaren ageriko organoa
10. Arrasateko mendizale elkarte
11. Minbera
12. 9. hilebetea
13. Aitzikia
14. Mehe
15. (Ald.) zuek eta ni
16. Bost bokaletatik erdikoa falta da
17. Modu

Bertikalak

1. (Ald.) barioa
2. Bizkaiko Udala
3. Alahena
4. Tamal
5. Fraide
6. Emakume izena
7. (Ald.) Eskandinaviako jainkoa
9. (Ald.) gizon zaharra
11. Lehor
15. Itsasoan ugari



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Polizi akademia eroa 3

Tokia: Monterron kultur etxea

Eguna: apirilak 4, larunbata


Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Aita Jauna

Asteko zinea

Aspaldian ATBn AITA JAU-NA pelikula emateko gogoaz genuen. Azkenean aste bat aukeratu, zoritxarrez Murun tximista jausi, eta gogoaz geratu ginen: Marlon Brando, Al Pacino eta Diane Keaton Coppolaren zuzendaritzapean ikusteko gogoaz.

Corleone mafiosoaren historia honek hiru Oscar jaso zituen bere garaian.

Eta bai, datorren astean berriro emango dugu.

Zergatik ez? Filme ederra eta dotorea dugu benetan!

Telebegi

• Egun hauetan ATBri buruzko inkesta bat burutu da, arrasatearrok etxe honi buruz duzuen eritzia eza-gutzeko. Momentuz zera aurreratu daiteke, datuak oso onak direla, gutariko optimistenak uste zezakeena baino hobek. Gora mondraue, gora bere telebisifue!

• Telebista geroz eta komunikabide garrantzitsuagoa dugu gaurko gizarte honetan. Agian horre: egatik mundu guztiak kontrolatu nahi ditu kate ezberdinak. Danok dakigu nor izkutatzen den TVEren atzean, edo ETBren atzean, edo...

ATBren kasuan lagun batzuk zalantzak adierazi izan dituzte. Egunez egunera puntuak irabazten goazela uste dut, ordea, eta aste honetan bertan, kasu, eritzi guztiz kontrajarririk plazaratzeko txanda izan du hainbat herritarrek. Gaua eta eguna, txuria eta beltza, ura eta olioak euki ditugu gurekin.

ATB ez delako inorena, edo barkatu, hobe esateko guztiona delako. Bai, zuena.

Eta ATB ez delako inorekin ezkonduko. Hori ez da posible, aspaldi ezkondu zitzaigun, Euskarekin eta Arrasatekin. Hirukotea, Arrasate, Euskara eta ATB oso da zoriontsua, eta alferrik dabil dibortziorik espero duena.

JON ANDUEZA

Mondrasport

Mikel eta Gerardo, kirola eta umorea

Astehenean
9.20

Ostiral musikala

Marta izagirre, musikaren inguruan

Ostiralean
9.20etan

Txatxaran

Ohiana eta Iratxe, futbolariak

Asteazkenean
9.15etan

Programazioa

5

IGANDEA

9.15. **Mondragol**. Mondra-Abetxuko partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardura-pean.

6

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBko albiste-emanaldia.
9.15etan, **Mondra Sport**. Arrasateko kirol-mundua-
ren erreposoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uri-
besalgorrekin.
9.50. **Asteko zinea**: Aita Jauna.

7

ASTEARTEA

8, 8.30, 9etan, **Berriak**.
9.20etan, **Erreportaiak**. Gaiak:
Mertzedariak 100. urtebet-
ezearen inguruan antolatu-
tako aste kulturala, eta Urku-
luko uren fluorazioa.
9.50. **Asteko zinea**: Aita Jauna.

8

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
9.15. **Txatxaran**. Maider Egués-
ek zuzendutako elkarrizketa
saioa. Aste honetako gonbi-
datua: Oihana eta Iratxe,
Mondra taldeko jokalariek.
9.50. **Asteko zinea**: Aita Jau-
na.

9

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
ATBren albistegia.
9.15. **ATBketan**. Arrasatea-
rren konkurtsoa, Anne
Igartiburu, gonbidatuak,
eta umorea soberan..
9,50. **Asteko zinea**: Aita
Jauna.

10

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
Arrasateko albisteak.
9,15. **Ostiral Musikala**. Mar-
ta Izagirre eta musika pro-
tagonista.
9.50. **Asteko zinea**: Aita
Jauna.



San Viator Ikastola

**50 urtez pertsona osoa eta
pertsona bakoitza hezitzen**

1. Mailako Hezkuntza



- * Eredu euskaldunak:
- * Ingelesa 1. mailatik aurrera
- * Musika arloaren tratamendu berezia
- * Ikaslearen jarraipen pertsonalizatua
- * Laguntza gela
- * Bertsolaritza (tresna gisa)

- * Teknologia (Informatikarekin)
- * Laguntza gela
- * Orientazio eskolarra edota lanerakoa
- * Ikaslearen jarraipen pertsonalizatua

Bizigiro Osasuna Moduloa

Batxilergoa bukatzean beste aukera bat. Praktika-saioak entrepresa eta laborategietan

2. Mailako Hezkuntza (12-18)



- * Hezibideko partaidea
- * Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko kidea

Izenemateko epea zabalik

Arrasate Pasealekua 10
Telefonoa: 790411